



**Zebra muskuilu helduen
koloniak goiz antzematea eta
horien jarraipena Euskal
Autonomi Erkidegoan. 2020**

LABURPENA

Txostenaren egilea
Ramiro Asensio González
(Cuestasensio S.C.)

AGIRI MOTA: Urteko txostenaren laburpena.

AGIRIAREN IZENBURUA: Zebra muskuilu helduen koloniak goiz antzematea eta horien jarraipena Euskal Autonomi Erkidegoan 2020 - LABURPENA.

ESLEIPENDUNA: CUESTASENSIO S.C.

EGILEA: Ramiro ASENSIO GONZÁLEZ.

DATA: 2020ko azaroa.

Azalaren argazkia:


Barakaldoko Ibarreta auzotik igarotzean Galindo ibaian aurkitutako zebra muskuilu heldu bat

2020ko urtean zebra muskuilu helduaren bila 94 laginketa egin dira euskal hidrografiaren beste hainbeste puntutan. Laginketa horietan, ibai edo urtegien ertzetako 16 Km-tan eta 58 ordutan zehar espezie horrek kolonizatu ditzakeen ia 10.000 harri miatu egin dira. Laginketa horietako bakoitzean gutxieneko bi baldintza bete behar ziren: 30 minutu eman eta 100 harri miatu.


EMAITZAK:

Laginketa horietako 52tan ez da zebra muskuilurik aurkitu; hala ere aitortu beharra dago horietako 5 laginketa ez zirela oso egokiak izan, ez baitzen gutxieneko 100 harriren miaketa baldintza bete. Gainerako 42 laginketetan, berriz, molusku inbaditzailea antzeman egin zen, nahiz eta horietako bi kasutan protokolorizatuta dagoen gutxieneko bi laginketa-baldintza horiek gutxi izan eta laginketa ahalegina handitu egin behar izan zen lehendabiziko muskuilua aurkitu arte.


Emaizta horiek hurrengo mapetan laburtzen dira grafikoki.



Laburpena. 2020



Kantauri isurialdean aztertutako ibai-tarteen kokapena



Mediterraneoko isurialdean aztertutako ibai-tarteen kokapena

ONDORIOAK:

Aurtengo zebra muskuilu helduaren bila laginketetan jasotako emaitza aipagarrienak hauek izan dira:


1. Espeziearen banaketari dagokionez, Kantauri-isurialdeko ibai-arro berri batean, **Galindo ibaiarenean** hain zuzen ere, espezie honen **ale helduak lehendabiziko aldiz aurkitzea** izan da berri erremarkagarriena inolako zalantzarik gabe. Sei urte lehenago, 2014ko uztailan, zebra muskuiluaren zenbait larba aurkitu ziren Gorostitza urtegian baina aurten arte ez da beste arrastorik lortu. Gainerako lurraldean oso gutxi aldatu da zebra muskuiluaren banaketa azken urtean. Beraz, 2020. urtean zebra muskuiluaren baieztutako koloniekinekin guneak hauek dira:

Kantauriko isurialdean:

- **Gorostitza** urtegian eta urtegitik **Galindo** (Castaños) ibaian beherantz, Barakaldon.
- **Nerbioi** ibaian, Mendikosolo errekarerekin bat egiten duen lekutik, Arrigorriagan, baita **Mendikosolo** urtegian bertan ere.
- **Lekubaso** urtegian eta urtegitik **Lekubaso** ibaian beherantz, Usansolon.
- **Undurraga** urtegian, Zeanurin, eta hortik **Arratia** ibaian beherantz.
- **Ibaizabal** ibaian, Arratia ibaiarekin bat egiten duen lekutik, Lemoan.
- **Aixola** urtegian, Zaldibar eta Elorrio (Bizkaia) eta Elgeta (Gipuzkoa) udalerrien artean

Mediterraneoko isurialdean:

- **Urrunaga** urtegian baita **Undabe** ibaiaren azken tartea, justu urtegitara heldu baino lehen, eta **Santa Engrazia** ibaiaren lehen tartean, Urrunaga presatik abiatuta.
 - **Uribarri-Ganboa** urtegian eta Arroiabe presatik behera **Zadorra** ibaiaren lehen tartean Abetxukoraino, bai eta Zadorra (Audikanatik) eta Barrundia (Ozaetatik) ibaiak urtegitatu aurreko azken tartetean ere.
 - **Ebro** ibaian, Euskal Autonomi Erkidegoaren muga osoan zehar.
2. **AIXOLA** urtegian, Zaldibar, Elorrio eta Elgeta udaletan, non iaz aurkitu zen zebra muskuilua lehendabiziko aldiz, baieztatu egin da kolonizazio bizkorra urtegian. Urpresatik beherantz doan ibaian, berriz, ez da muskuilu inbaditzailearen alerik aurkitu momentuz.
 3. Uribarri-Ganboa urtegitara **ZADORRA** ibaia heldu baino azken tartean zebra muskuiluaren agerreraren frekuentzia nabarmen murriztu egin da aurten (41%pZM 2018an → 17%pZM 2019an → 3%pZM en 2020an).
 4. **IBAIZABAL** ibaiaren tarte oso konkretu batean, Etxebarrin eraiki berria ekaitz andelaren alboan, zebra muskuiluaren populazio gehitze garrantzitsua antzeman da. Egokia dirudi datozen urteetan egoera honen jarraipena antolatzea.



Zebra muskuiluak kolonizatutako Euskadiko ur-masak, azken helduen laginketen arabera.



Zeanuritik igarotzean Arratia ibaian harri bati itsatsita dauden zenbait zebra muskuilu helduak